

Arrasate

P R E S S

1996ko
Uztailak 5
327. zenb.

IKUSPEGIA

Mikel Irizar

KULTURA

Jose Marcos
Moreno

KIROLAK

Jose Luis Sanz
memoriala

ELKARRIZKETA

Joxe Berezibar

Kalistroak

Gazteen txoko ezkutua






ALTZARIAK Berango

SUKALDERAKO EKIPAMENDU OSOA

- Bainu altzariak
- Armairu enpotratuak

ELEKTRAGAILU BANATZAILEAK:



CARFRA
**5 URTEKO
GARANTIAZI!**

ERAKUSKETA
Legarre Pabilioia, z/g
Gipuzkoa Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 92



VENTANAS SAN MIGUEL

**Ventanas San Miguelekin...
Denean irabaziko duzu.**


Erosotasunean irabaziko duzu.

**Aurrezpenean eta energian
irabaziko duzu.**

Isolamenduan irabaziko duzu.

Konfortean irabaziko duzu.

**Iturriotz, 24
ARRASATE**
Tfnoa: 79 78 10



*Etonni gurena!
Denean irabaziko duzu!*

Elkarrizketak

Elkarriren manifestaldiaren ondoren go astelehenean ari naiz idazten eta zu, berriz, hurrengo asteburuan ari zara irakurtzen. Ez dakit, beraz, ia tarte horretan ezer gertatuko den nire idatzia baliogabetu edo baliogutxitu lezakeenik. Hala ere, banoa.

Bilboko Arenalean Jonan Fernandezek zioen bezala, joan den asteko lau keinurekin zer nolako itxaropena piztu den ikusteak ondo adierazten du herri honek duen bake egarria. ETak astebeteko su etena amaitutzat eman duela dirudien arren, orain edo geroago elkarrizketa bidez etorriko ei da bake hori, eta bi motatako elkarrizketak aurrikusten dira: Gobernua eta ETaren artekoa eta alderdi politikoen artekoa.

Nik, aldiz, beste elkarrizketa batzuk ere beharrezkoak ikusten ditut, balizko bake horrek atzera egin ez dezan. Nire ustez, herritarren artean elkarrizketa ugari beharko dugu esparru komunak sortzeko, oinarritzko adostasunak eraikitzeko eta bakoitzaren desberdintasun/berezitasunak onartzen ikasteko.

Adibidez, espainol sentimenduko herritarrek onartu beharko du Espainia ez dela betidanikoa -apenas 500 urte dauzka!- eta seguruenik ez dela betirako izango, egitura zaharrak mugitzen hasiak

baitira. Eta euskaldun sentitzen garenek ere aitortu beharko dugu Euskal Herria politikoki ez dela inoiz izan, eta oraindik ere ez dela. Eta noizbait zerbait izango bada, hemen bizi garen guztioi geure bizimodua hobeto eramateko lagunduko digun tresna bihurtzen den heinean izango dela, eta ez historiak edo patuak derrigorezko egiten dutelako.

Euskararekin berdin. Gaztelaradun elebakarrek onartu beharko dute hizkuntz-egoerarik onena simetrikoa dela, non bakoitzak nahi duen hizkuntza erabil dezakeen, jakinik solaskideak ulertzen duela. Eta euskaldunok onartu beharko dugu gaztelera ere geurea dela, elebitasuna aberasgarria dela eta eleaniztasunean iraun beharko duela euskarak, irautekotan.

Elkarri hitzeginaz aztertu behar dugu denok zer den gure jarreretan fundamentala eta zertan diren geure jarrerak fundamentalistak. Oinarritzotzat hartu ohi ditugun ideietan zenbaterik duen barrua sana eta zenbaterik ustela. Elkarrizketak esango digu aspaldidanik bizkarrean daramagun motxila betean zer den zama hutsa eta zerk balio digun besteekin bidaia egiteko.

MIKEL IRIZAR

I
R
T
A
B
E
R
N
A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

Memesa
79 42 22



ARRASATEKO UDALA

*Aldizkari honek Arrasateko
Udalaren laguntza jaso du*



*Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du*



*Aldizkari honek
Eusko Jaurantziako Kultura
Sailaren laguntza jaso du*

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Alberto Garro eta Kaitin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzeratua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana. Miren Edurne Elviraren argazkibatean oinarritua.

beatriz
oinetakoak eta
poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

**FELIPE
MADINA**
ZURAK
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

ITSASKI
ARRANDEGIA
Arrain freskoa
eta jaki izoztuak
Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

URRATS
AHOLKULARITZA
GARIBAL, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

PEUGEOT
Salmenta eta
zerbitzua
**IBABE
GARAJEA**
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

etorri jakun/arrasatearrok erremintari dantzan jardun dogu / ... eta arrasatearrok dragoi-jana egin dogu.

KARMELO URIBARREN

.....
Renault 6 berde hura

Goitibeherak ziztu bizian zetozen une hartan zer egiten zuen R-6 berde hark zir-kuituan?

Hori zen ikusle eta antolatzaileok geure buruari egiten genion galdera. Egiaren izenean eta lagun horren jokaerak explikazioa duelako, esan, R6 berde hark goitibeheren istripu batean zauritutako pertsona bat zeramala atzealdeko jarlekuan etzanda eta hori inork ez zekielako.

"Huts egitea" izan zen DYAKoek ez zutela gura izan anbulantzia mugitzerik zaurituak zuen "larritasunagatik", izan ere larriagoak gerta zitezkeen Mojetako kurba hartan. Hori horrela R-6 berdearen jabeari eskatu zitzaion mese-dez urgentzietara eraman zeza-la zauritu hura.

Horra hor bada prezio merkeanean berez etorritako errespontsabilitatea handiena eta txarren interpretatua izan dena.

Horrela bada, antolatzaileok eskerrak eman gura dizkiogu R-6 berdeko gidariari eta uste dugu hau irakurri ondoren zirkuituan jaso zenituen txistuak dagoeneko txaloak bilakatu direla.

Mila Esker Guerra!

**GOITIBEHERA TXAPELKETA-
REN ANTOLATZAILEAK**

.....
Eskerrik Asko

ARRASATE PRESSen bidez eman nahi nieke nire eskerrik beroenak Goikobalu abesbatzari eta bereziki bere zuzendari den Iñaki Maidagani, nire 82. urtebetetzean, ezinbesteko aukera zoragarria eman didatelako, eurekin eta Donostiako Orfeoiarekin batera parte hartzeko Arrasaten egin den Orfeoiaren 100. urtemugaren ospakizunetan. Lehenengo Herriko Plazan bi abesbatzek eman zuten ekitaldia, 100 urte aurrerago abestu zituzten abesti berdinekin. Eta gauean, Amaia antzokian, bi taldeek Euskadiko Orkestarekin eman zuten kontzertu zoragarrian parte hartzea izan da niretzat egunik zoriontsuenetarikoa. Ez dut uste horrelako egun gehiago hartuko dudunik. Eskerrik asko.


Era berean bihotz bihotzez eskerrak eman beharrean nago, gauean bertan Eskola Politeknikoko jangela aretoan egindako afari ederraren ostean eman zidaten zorionagatik, abesbatz biak elkarturik. Gaueko 12etan itxungi ziren argiak eta neure aurrera agertu ziren Xami eta Iñaki, bi zuzendarriak, pastel batekin, 82 palillo ixotuta, kandelen orde, putz batekin itxungitzeko. Gero argiak ixotu ziren eta orfeoi biek Zorionak abestu zuten. Hori izan zen niretako gauzarik handiena, sekulako zirra-ra eta zoramena sortu zidan gorputzean eta malkoak neure begietan.

Eskerrik asko, bizi osoan gogoan edukiko dut hau.

PEDRO ZUMELAGA

**TXOKO
TABERNA**
Gure berezitasunak pintxo eta
mekau gozoak

Kalistroetara joateko ohiturarik baduzu?




Asier Llaguno
Ikaslea
(16 urte)

Ez daukat horra joateko ohiturarik, eta ez dut uste joango naizenik.




Leire Olea
Ikaslea
(19 urte)

Gazteagoa nintzenean lagunekin joaten nintzen noizean behin. Barriketan egiteko joaten ginen. Leku ezkutua zelako gustatzen zitzaigun.




Carlos Urzelai
Langilea
(31 urte)

Orain dela hamabi urte joaten nintzen. Zigarroak ezkutuan erre eta neskekin egiteko joaten ginen.



Marisa Tierno
Ikaslea
(17 urte)

Ez naiz joaten, beste toki batzuetara joaten naiz. Seber Altube plazako bankuetara bai baina ez kalistroetara.




Carlos Vitoria
Ikaslea
(23 urte)

Santa Teresan bizi naiz eta gutxitan jeisten naiz kale-
ra. Beraz, ez naiz kalistroetara joan.



Esther Martin
Langabezian
(25 urte)

Ez naiz inoiz joan. Gainera, Makatzenan bizi naiz eta kalistroak urrun geratzen dira.



Ruben Alaba
Langilea
(25 urte)

Joan izan naiz. Lehenengo zigarroak erre eta kitarra jotzera joaten ginen.



Mari Karmen Arenaza
Langilea
(37 urte)

Gogoratzen dudanez gazteagoa nintzenean ez zegoen kalistroetara joateko ohiturarik. Ez dut uste atea zabalik egoten zenik. Gu beste toki batzuetara joaten ginen.



**Zure OPEL
banatzailea
ARRASATEN,
zergatik joan
urrunago?**

OPEL 

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabillioa Tfnoa: 79 05 86 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igalatoria 79 05 00	
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutze Gorria	
Bergara	76 55 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria	77 03 46
• Espezialitateak	77 05 78
	77 12 64
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
Udaltzaingoa	
Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza088
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua ..	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	.088
Matxurak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoendako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearendako informazioa	
KIUB-OMIC	79 51 55
Monterongo liburutegia	
Monterron	77 01 05
Irratia	
Arrasate Irratia	79 58 77

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 5	
Gaueko 10ak arte: Irizar, Erquin. Egunez eta gauez: Mozos. Bergara.	
Larunbata 6	
Gaueko 10ak arte: Amezua. Santamaina. Egunez eta gauez: Camacho. Bergara.	
Igandea 7	
Gaueko 10ak arte: Ruiz. Maala. Egunez eta gauez: Camacho. Musakola.	
Astelehena 8	
Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres. Egunez eta gauez: Puy. Bergara.	
Astearte 9	
Gaueko 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías. Egunez eta gauez: Guallar. Bergara.	
Asteazkena 10	
Gaueko 10ak arte: Español. Iturriotz. Egunez eta gauez: Estella. Bergara.	
Osteguna 11	
Gaueko 10ak arte: Corcuera. Musakola. Egunez eta gauez: Mozos. Bergara.	

5 OSTIRALA

- **ZINEA**
"A la hora señalada" 7etan eta 10etan.
- **ASANBLADA SEBERON**
Gestorak antolatuta Asanblada Seberon arratsaldeko 7.30etan.
- **ARAMAIOKO JAIAK**
Arratsaldeko 7.30etan jaien hasiera. 11etan rockjaialdia parkean Ekon, Xementeo eta Etsiak taldeekin. Plazan berriz, Lisker taldearekin dantzaldia.
- **MONDRAREN BATZAR OROKORRA**
Mondra taldeak Batzar Orokorra egingo du Udaletxeko pleno aretoan arratsaldeko 7etan. Bazkide guztiak daude gonbidatuta.

6 LARUNBATA

- **ZINEA**
"A la hora señalada" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **EL ROCIO EGUNA**
Al Andalus taldeak antolatuta El Rocio eguna. Erromerian Udalara igoko dira goizeko 10etan. 12etan meza rociero Udalako parrokiari. Ordu batean dantza eta kantu emanaldia. 2.30etan herri bazkaria eta arratsaldeko 4etan jaialdia.
- **NAFARROA ETORBIDEKO LAGUNEN AFARIA**
Urtero moduan Nafarroa ibilbidean jaio edo bizi diren lagunek afaria izango dute sorpresaz beteta.
- **ARAMAIOKO JAIAK**
Eguerdiko ordubatean Txontxongilo antzerkia B. Goikoetxea plazan. Arratsaldeko 4etan Futbito eta saskibalo partiduak Frontoian. 6etan Briska, Mus eta Tute txapelketak jubilatuen lokalean 7.30etan bertso saioa. Bertsolariak: Peñagarikano, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Zigor Enbeita. Gaueko 9etan Kilkir txaranga herriko kaleetan zehar. 10etan pilotako finalak San Martin frontoian. 12etan Egan taldearekin dantzaldia.

7 IGANDEA

- **ZINEA**
"Como conquistar Hollywood" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **JOSE MARI SAIZ MEMORIALA**
Arrasateko zikloturisten elkarrekin antolatuta IV. Jose Mari Saiz memoriale. Goizeko 9etan Maxi Eroski parean elkarrekin dira partehartzaileak.
- **ARAMAIOKO JAIAK**
Eguerdiko 12etan Meza eta ondoren dantza saioa. Arratsaldeko 4.30etan Haurjolasak. 6etan ehiza ibilbidea Letasur-en. Gaueko 11etan Arkaitz taldearekin dantzaldia. Arratsaldean txaranga-ekin animazioa.

EL ROCIO EGUNA ZAPATUAN

Al Andalus taldeak antolatuta El Rocio eguna. Erromerian Udalara igoko dira goizeko 10etan. 12etan meza rociero Udalako parrokiari. Ordu batean dantza eta kantu emanaldia. 2.30etan herri bazkaria eta arratsaldeko 4etan jaialdia.



8 ASTELEHENA

• **ZINEA**

“Como conquistar Hollywood”
7etan eta 9.30etan.

• **ARAMAIKO JAIK**

Goizeko 12etan Meza. 12.30etan umeentzat jolasak. Arratsaldeko 4etan globoak eta umeentzat motorrak eta bizikletak. 8etan Arrasate Musikal taldearekin kontzertua zineman. Gaueko 10.30etan Izotz taldearekin dantzaldia.

9 ASTEARTEA

• **ZINEA**

“Como conquistar Hollywood”
7etan eta 9.30etan.

• **SAN JUAN JAIEN BALORAZIO BILERA**

San Juan jaien balorazioa eta kritika egin eta datorren urterako proposamen berriak zehazteko bilera arratsaldeko 7etan AEDko lokalean.

11 OSTEGUNA

• **ZINE KLUBA**

“Justino, un asesino de la 3ª edad” gaueko 10.30etan Monterrongo parkean. Sarrera 400 pezeta eta Gazte-Txartelarekin 350 pezeta.

UZTAILA MONTERRONEN

Zinea, antzerkia eta dantza emanaldiak izango dira uztailean Monterron parkean. 18an eta 25ean Brain Dead eta Dias Contados filmeak egongo dira ikusgai. 12an gaueko 10.30etan Frankestein antzezlan Tattan Club taldearekin. 19an berriz Lore Gazteak dantza taldearen ikuskizuna eta 23an Baskiria Errepublikako talde folklorikoa gaueko 10.30etan..



KANPOKO LOREN APAINKETA

Ibai Arte Elkarteak kanpoko loren IV. apainketa lehiaketa antolatu du. Ez da beharrezkoa izena ematea. Saria emateko orduan balkoi, miradore eta leihoetako edertasuna eta barietatea hartuko da kontuan. Parte hartzeko epea uztailaren 19ra arte egongo da zabalik. Hiru sari banatuko dira: lehenaren-tzat 35.000 pta., bigarrenaren-tzat 25.000 pta. eta hirugarrenak 10.000 pta. jasoko ditu.

PINTURA ERAKUSKETA MONTERRONEN

Uztailaren 5etatik 14ra pintura erakusketa Monterronen. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbata eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8ak arte.

ESKULANEN ERAKUSKETA

Famili eta Gizarte Hezketarako zentruaren eskulanen erakusketa uztailaren 12tik 14ra Famili eta Gizarte Hezketarako zentruan. Ordutegia: goizeko 11etatik ordubata arte. Arratsaldez 6etatik 8.30ak arte.

SANTAMAINAKO JAIK

Uztailaren 12tik 14a arte Santamaina auzoko jaiak ospatuko dira. Ostiralean arratsaldeko 3etan Xake eta ping-pong txapelketekin eman-gio diote hasiera jaii. 5etan marrazki lehiaketa Makatzenan. 7etan etxaflero jaurtiketa eta kilikiak. 7.30etan IV. futbolin txapelketa Montserrats tabernan. Gaueko 10etan tute txapelketa bikoteka Toki Argi tabernan. 11etatik aurrera dantzaldia plazan.

LANPOSTUEN ESKAINTZA

Arrasateko Udalak —bi urterako eta praktiketako modalitatean— aldi baterako lanpostu hauek hornitu behar ditu:

- **Gazte Informatzailea**
- **Udal Irratiko Teknikari laguntzailea**

Hautaketa prozesuak agintzen dituzten oinarri-arauak Udaletxean jaso daitezke. Eskabideak aurkezteko epea uztailaren 12an itxiko da.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

“Behar bada norbaitek serio jarri eta hau guztia aztertu beharko luke. Beraien miseria eskutatzearren instituzioen aurkako konjuroa ikusten dutenek, agian benetan zer gertatzen den pentsatu beharko lukete. Normala da funtzionari batekin eztabaida eduki duen preso bat hurrengo goizean bere zeldan urkatuta agertzea? Zergatik ezkututzen dute FIES izeneko departamendu berezietan gertatzen dena? Zenbat suizidio dira benetakoak eta zenbat behartutakoak? Dena hain normala dela pentsatzen badute zergatik ez diote uzten inori beraien heriotz zeldak ikeretzen? Edo norbaitek sinesten al du, Fernandez andere prostituituak zioen bezala, presoak masokak direla patiora termo batekin irtetzen ez uzteagatik gose-greban sartzen direlako?

Pako Robles, 1996-6-20.

egin

“Bihar ospatuko da Gay Harrotasunaren Eguna. Gehienek larrua buruz behera jotzen dutenean, batzuek hankaz gora jotzea ez dakit harrogarria den, baina ezta lotsatzekoa ere. Egun hau sexu-aniztasuna normalizatua ez dagoen seinale da; umiliaziorik ez balego, ez litzateke harrotasun-egunik ere beharko. Eta egoera honen erantzukizuna, ez Elizek bakarrik, baina hauek ere badute, batez ere Eliza ofizial, atzerakoi (ez atzelari, mesedez!) eta dogmatikoenek. Izan ere, gay eta lesbiana gazte askok aita-amengatik sufritzen du lehenik, eta gurasoen pentsaera eta bihotzean eragin handia du oraindik Elizen hitzak. (...)

God is gay zioen iaz Egunkariak ateratako gehigarrian manifestari baten pankartak. Eta zergatik ez, ba? Jainkoa maitasun bada, zergatik ez da Iker eta Oskarren edo Ainhoa eta Leireren artean haragitu, Joxe eta Mariaren artean bezalaxe?

Iñaki Mendiguren, 1996-6-27. **Egunkaria**

Zelan joan dira aurtengo San Juan jaiak?

Balorzioa oso positiboa da. Izan den giroa baloratzea jendeari bada-gokio ere, esango nuke giro ona egon dela eta ekintzek erakarririk dituztela ikusleak.

Aurtengo San Juanak antolatzeke partaidetza eskatu genuen, eta jendeak aktiboki parte hartu du antolakuntzan. Ohiko taldeak eta jende berria inplikatu da antolakuntzan, batez ere 16 eta 20 urte arteko gazteak. Horregatik, jaietako protagonistak gazteak izan direla esango nuke. Bestalde, ados jarri gara jaien diagnostikoan eta zein jai mota bultzatu nahi dugun zehaztean.

Ekintza berriei dagokien zai guneak, dragoi janak, goitiberak, Zuberoako dantzek eta haurrendako egunak izandako arrakasta azpimarratuko nituzke. Horrez gain, ezin aipatu gabe utzi gaueko dantzaldietan Herriko Plaza inoiz baino gehiago bete dela. Jaietarako atera genituen kamisetak eta erraz saldu dira.

Baina jaiak izan dute alde txarrik ere. Ez genuen makala igotzea lortu, eta datorren urterako segurtasun handiagoarekin eta erraztasun gehiagorekin igotzen ahalegindu beharko dugu. Eguraldiak ere ez zuen askorik lagundu, nahiz eta kalean egin ziren ekintza gehienak ez zituen zapustu.

Datorren astean antolakuntzan ibili garenok bilduko gara jaiak nola joan diren aztertu, eta jaiak finkatzeko. Aurten jai batzordea era naturalean eratu da, baina orain, batzorde horri nortasuna eman beharko zaio.



Juan Luis Arexolaleiba
Jaietako Zinegotzia

**HONELAKO ERRENTAGARRITASUNAK,
3 EDO 5 URTEAN BEHIN EMATEN DIRA**

Errentagarritasun bermatua 3 urtetan

% 25

Errentagarritasun bermatua 5 urtetan

% 48

MIKEL LASA Aseguru Artekaria, S. A. Maalako Errabala, 33-behea - ARRASATE - Tfnoa: 79 69 00 - Faxa: 77 10 74

BANKINTER **A G E N T E A**

Lor itzatzu Bankinter Aurrezki Seguru Kontu bat irekiz. 500.000 ptako inbertsio batetik hasita, 3 eta 5 urtera %25eko (%7,70 TAE) eta %48ko (%8,00 TAE) errentagarritasuna bermatzen du.

Errentagarritasun biek ez dute erretentziorik eta Inbertsio Fondoetara gordetzen diren abantaila fiskalez baliatzen dira, era horretan Bankinter Aurrezki Seguru Kontua oso gutxitan eskaintzen den aukerari batean bihurtuz, baina zuk orain guri deituz edo gure bulegoetara etorri zaitzaz dezakezuna.

Bizitza-Aurrezki Asegurua denez, adinaren arabera aldaketa txikiren bat egon daiteke errentagarritasunetan. Hemen aipatzen ditugunak 50 urteko pertsonen dagokienak dira. Adin nagusiagokoei buruzko informazioa jasotzeko kontsulta egiguzu arren.

MCCri saria

Lan tresnen kontserbazioan eta mantenimenduan egindako ahaleginagatik saria jaso zuen astelehenean MCCko automozio sailak. Era horretan, energiak eta lehengaiak aurrezten direlako jaso zuen Castolin-Eutectic erakunde suizarrak ematen duen saria. Orokorrean MCCko automozio saila saritu arren, batez ere Fagor Ederlanen egindako lana goraiatu zuen Castolin-Eutecticeko zuzendariak. Fagor Ederlan izan da estatuan saria jaso duen lehen enpresa. Orain, estatu bakoitzean saria jaso dutenen artetik taldea osatu eta onenari nazioarteko saria emango zaio. Erakunde suizarreko zuzendariak esan zuenez, MCCk aukerak ditu lehenengo postua eskuratzeko.

Hau da marka! saioan istripua

ETBren *Hau da marka!* saioa hasi ziren grabatzen joan den ostiralean Aramaion, baina lehiakideek istripua izan zuten eta saioaren grabaketa bertan



Gay eta lesbianen eskubideak aldarrikatu

Maite ezazu nahi duzuz bezala zioen pankarta batekin lagunduta, hainbat lagun kalejiran ibili zen joan den ostiralean Arrasateko kaleetan zehar. Gay eta lesbianen eskubideak aldarrikatzea zuen helburutzat Egizane eta Emakumeen Asanbladak deitutako ekintzak. *Zutik emakumeak* abestia kantatuz eman zitzaion bukaera ekintzari. Gutxi gorabehera berrogei gizon eta emakumek parte hartu zuen gay eta lesbianen nazioarteko eguneko aldarrikapenean.

behera geratu zen. Lehiakideak aurrean zeudela, bi kaxatan zegoen polborak eztanda egin zuelako gertatu zen istripua. Ondorioz, sei lehiakideak eskualde ospitalera eraman behar izan zituzten lehen eta bigarren mailako erredurekin. Istripua larria izan ezenez, segituan alta

eman zieten. Goiz partean Musakolako igerilekuan grabatu zuten proba bat.

Sabotaia

Egin egunkarira egindako dei batek bere gain hartu zuen "Pastas Arruabarrena" enpresaren kamioi baten aurka Arrasaten egindako

sabotaia. Egin-en jakinarazten zenez, enpresako nagusiak zerga iraultzailea ordaintzen ez duelako eta presoei elkartasuna adierazteko egin zuten erasoa. Ez zen argitzen sabotaia noiz egin zen.

JAIOTZAK

- Leire Balenziaga Villar. Ekainaren 11n.
- Leire Carreras Orobengoa. 13an.
- Ane Mujika Agirre. 15ean.

EZKONTZAK

- Manuel Alonso Gonzalez eta Angela Urbano Rodas. Ekainaren 15ean. Elizatik.
- Daniel Jorge Agedo eta Maria Manuela Amaral De Souza. 15ean. Elizatik.
- Jose Ignacio Inda Altuna eta Maria Elena Tercero Coronado. 22an. Elizatik.
- Deunoro Zeziaga Bolinaga eta Maria de los Angeles Sanchez Sanchez. 28an. Zibilez.
- Luis Maria Zubillaga Duiat eta Maria Angeles Fernandez Lillo. 28an. Zibilez.


HILDAKOAK

- Andres Bidaburu Aranburuzabala. 87 urte. Ekainaren 19an.
- Maria Rodriguez Lopez. 88 urte. 21ean.
- Maria Paz Garcia Rodriguez. 86 urte. 24an.

LENIZ ALUMINIOAK


Eskatu aurrekontua doan eta konpromezurik gabe.

Bi orriko atea



~~109.000 pta.~~
101.000 pta.


Orri bateko atea: 73.000 pta.!!!



P.V.C.an udaberriko beharpen bereziak!

Leihoen neurria Lzurre beharretara egokitzen dugu. Mota guztietako leihoak ditugu: poliuretanoa, aluminioa, apurketa termikoa...

Bi orriko leihoa



~~84.000 pta.~~
76.000 pta.

Orri bateko leihoa: 54.000 pta.!!!

Oharra: Prezio hauetan instalakuntza osoa sartzen da.

Erakusketak eta salmenta: Labeaga kalea, 21 • Tfnoa: 72 49 33 • Urretxu



* Jose Luis Alonso

Ikas dezagun menpekotasun barik bizitzen

Drogen okerreko erabilaren eta debekuzko trafikoaren kontrako nazioarteko eguna dela eta, ondorengo gogoe-tak iritsarazi nahi dizkiete, behean izenpetzen duten Deba Garaiko kaltetuen familiar-teko elkartekoek biztanle guztiei:

- Adikzioa eta menpekotasuna, alkohola, tabakoa eta legez kanpoko drogekikoa ezezik, baita jokua eta besterekikoa ere, lehen mailako arazoa da gure gizartean.

- Menpekotasunekin zerikusia duten arazoak gutxitzera bideratutako iharduerak bideratzeko, eskaintza nahiz eskaria zer-nolakoak diren aintzat hartu beharra dago.

- Substantzia horiek eskuratzera gero eta zailago izatera jo behar da. Eusko Legebiltzarrak onartutako drogen

menpekotasunari buruzko legea, jokoari buruzko legea eta udal ordenantzak bete-araziz, eta betetzen ez direnean salaketa eginez.

- Menpekotasun kasu berriak gerta ez daitezten, prebentzio neurriak hartu behar dira, bai eta eragindako pertsonak lehengoratzeko eta gizartean txertatzeko beharrezko diren baliabide tera-

.....

“Menpekotasunekin zerikusia duten arazoan konponbideak gizarterako arlo guztien eta pertsona ororen eskuhartzea eskatzen du”

peutikoak jarrai ere, solidaritatea eta guztion laguntza bultzatzen delarik.

- Gazteen etorkizunera-ko dituzten itxaropenak sendotuko dituzten itxaropenak sendotuko dituzten neurri sozialak bultzatu behar dira, lanaren, etxebizitzaren, kulturaren eta abarren inguruan.

- Menpekotasunekin zerikusia duten arazoan konponbideak gizarterako arlo guztien eta pertsona ororen eskuhartzea eskatzen du, zeinek bere inguruan, etxean, kalean, nahiz lanean. Guraso, hezitzaile, sendagile, politikoa eta gainerakoek, erantzukizun handia dugu guztiok ere, eta ezin dugu axolagabeki jokatu, drogak eta menpekotasunak arazo izango ez diren gizarte osasuntsua ahalbideratuko duten jarrera-balorre-eta jokabide-aldakuntzak lortu nahi baditugu.

Horregatik guztiagatik datorren ostiralean, hilak 12, Drogaren Aurkako Nazioarteko Egunean, Bergaran burutuko diren ekintzetan parte hartzera gonbitatu nahi zaituztegu. Ekintzak arratsaldeko 6.30etan hasiko dira Bergarako plazan. Han ikusiko dugu elkar.

* GIZAKI HELBURUKOA

USTEAK USTE

OPOR GIROAN

Joan ziren San Juanak, ailegatu da uztaila eta oraindik askoren oporretarako egun dezente falta arren, opor usaina argi eta garbi nonahi. Jaiak antolatze-ko beste ezertarako ez da mugitzen jendea. Instituzio eta lantoki ugaritan udako ordutegiaz ari dira, goizean goiz joan eta erlojuaren orratzak eguerdira arteko bidea zein poliki egiten duten begira, sufritzen.

Komunikabideetan gabilzanontzat ez da ez, sasoi hau oparoena izaten. Gauza gutxi kontatzeko, eta normalean ezer ez. Behar bada horregatik, irakurleei eta ikusleei produktu interesgarriak eskaini nahiean, egun hauetan ahalegin berezia eskatzen diegu geure neurona urriei. Urteko beste edozein sasoi-tan berri izatera iritsiko ez zena hartu eta berri bihurtzen dugu. Gainera, azkenaldiko eguraldiak ere ez digu gehiegi laguntzen. Sikiera eguraldi ona egingo balu, jendeak denbora gutxiago eman-go luke aldizkariak irakurtzen edo eta telebista ikusten, eguzkipean gustorago ibiliko litzateke.

Eta hala ere pozik egoteko moduan gaude, uda partean normaltasuna apurtzen duten berriak gehienetan txarrak izaten dira eta: istripuak, suteak, heriotzak.... Hortaz, beste asko bezala, geu ere erlojuaren orratzei eta egutegiko orrialdeei begira, Santiago bezpera arte gutxienez.

BEÑARDO KORTABARRIA



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Urbarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



Lanbide Eskolan parte hartzen ari diren 54 ikasle dabilta eraikina egiten.

Enpresa Sustapenerako Zentroa itxura hartzen

Eraikinaren estruktura egin ondoren, Enpresa Sustapenerako Zentroa izango denari itxura ematen hasi dira Lanbide Eskolan ikasten ari diren ikasleak. Guztira 54 ikasle ari dira Zaldibar ikastetxearen alboan zentroa egiten.

Lehenengo hilabeteetan igeltseritzari, iturgintzari, arotzintzari edo elektrizitateari buruzko ezagutzak jaso dituzte ikasleek, eta apirilean ikasitakoa praktikan jartzen hasi ziren. Aurreikuspenen arabera, 97rako bukatuta egongo da enpresa bat sortu nahi dutenei txoko bat emango dien zentroa. ESZA

arautuko duen araudia egin gabe dagoen arren, enpresa bat eratu nahi dutenendako lokalak prezio onean alokagai jartzea izango da helburua. Dirulaguntzei dagokienez, INEM erakundeak proiektuaren %75a finantzatuko du eta %25a Mankomunitateak. Horrez gain, Arrasateko Udalak estrukturararen kostua ordaindu du.

Enpresa eta Berrikuntza Zentroarekin konparatuz gero, Zaldibarko zentro honek ofizio bat ikasi dutenei enpresa sortzeko aukera emango die. EBZan, berriz, formazio maila altuagokoei emango zaie aukera.

Dirulaguntzetarako deialdia

Arrasateko Udalak dirulaguntzak emango die gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duten taldeei. Hirugarren adinari zuzenduta dauden jarduerak aurrera eramaten dituztenei, eta hegoaldea garatzea helburu dutenei emango zaie laguntza besteak beste.

Dirulaguntza eskatzeko dokumentazioa uztailearen 17a baino lehen aurkeztu beharko da.

Aholkularitza Udalei

Deba Garaiko Mankomunitatea Udalei hirigintzaren inguruko aholkularitza emateko zerbitzua antolatzekotan dabilela eta, Arrasateko Udalak erantzun dio ez duela uste zerbitzu hori askotan erabiliko duenik. Hirigintzari buruzko gaiez arduratzen diren teknikariak badituelako eman du erantzun hori Udalak.

Apatutako zerbitzua batez ere herri txikiei zuzenduta egongo da, azken horiek ez dutelako horrelako aholkularitza motarik edukitzeko bitarteko handiegirik.

Arreta haundiko sukaldea

UGARAN jatetxea

Giro abegikorra

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE

**Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis**

Otalora, z/g Behea
ARRASATE
Tfnoa: 79 11 72

EZARKI

OINETAKO KONPONKETAK

Zabaldu berriak
Postalaitik 100 metroa!!

Maalako Errebala, 8
ARRASATE

- Oinetako mola guztien konponketa (kalekoak, kirolekoak, mendikoak...)
- Kremailerak
- Rematxeak, ojalak, automatikoak
- Kremak, tinteak, kordioak
- Nekearen kontrako plantila bereziak
 - Zientifikoki aztertutak
 - Forma anatomikodunak
 - Arazo guztientako plantilak

JUBAR

- Ate eta pertsiana automatikoak
- Automatismook
- Mantenimendua
- Urrunerako aginte-tresnak

Kataide Poligonoa, 18
ARRASATE
Tfnoa: 79 10 20 • Faxa: 79 08 17



Angel Iglesias S.A.rekin batera eratuko du sozietate berria Fagorrek.

Sozietate berria eratzea onartu du Fagor Elektronikak

Asteartean ez ohiko bilera egin zuten Fagor Elektronikako bazkideek, eta asanbladara hurbildu ziren bazkideen %83ak onartu egin zuen sozietate berria eratzea. Angel Iglesias S.A., Ikusi markako produktuak merkaturatzen dituenarekin, sortuko du sozietate berria Fagorrek. Angel Iglesias S.A.k Donostian eta Logroñon ditu lantegiak.

Bat egitearen helburua, telekomunikazio alorreko produktuak komertzializatu eta saltzea da. Telebista seinalea satellite eta lurreko uhinen bidez jasotzeko nahiz telebista seinalea kable bidez bidaltzeko produktuak

egin dituzten sozietate berriak. Era berean, telekomunikazioan lan egiten duten estatu-ko enpresa garrantzitsuenak izan eta nazioartean indarra hartzea lortu nahi da.

Irailaren bukaera alderako lantegi bakoitzaren iharduera zein izango den finkatu, eta sozietatearen deitura eta egoitza sozialaren kokalekua erabakiko dira. Fagorreko bazkide kooperatibistek orain arteko eskubideak izaten jarraituko dute.

Elkarketarekin hemendik eta 2000garren urtera arte 40 lanpostu berri sortzea aurreikusi da.

Geltokia egiteko aldaketak

San Andresen eta Gari-bairen artean autobus geltoki berria egingo dela eta, Udalak prestatu du gune berri hori egiteko proiektua.

Era horretan, Abaroa aurrean dagoen espaloia eta aparkalekuak egokituko dira ondoren geltokia egiteko. Milioi bat pezeta gastatuko da obra egiteko.

Orain dela hilabete batzuk, PESA konpainiaren autobusak San Andresen geratuko ez zirela jakitean, hartu zen beste geltoki bat moldatzeko erabakia. Hiri-buruetatik datozen autobusak izaten dira San Andresen geratzen ez direnak.

Segurtasuna eskatu

INEM erakundeak bulego Anbulategiaren aurrean dagoen eraikinean jarriko duenez, Udalari eskatu dio eraikin horretan segurtasun neurriak jartzea. Etxea hesiekin inguratzea, alarmak ipintzea eta leihoetan kristal bereziak jartzea eskatu dio besteak beste. Sabotajeak eragozteko eskatu du INEMek neurriak hartzea.

Belem

**1. urteurrena Arrasaten!
4. urteurrena Aretxabaletan!**

**Portugaletik inportazioak!
Prezio ezin hobeak!
Konfiantza osoaz!**

Olarte, 6 Tfnoa: 79 25 71 ARRASATE
Herriko Plaza, 10 Tfnoa: 79 59 78 ARETXABALETA

CIM

HIZKUNTZAK-IDIOMAS

"Hizkuntza bat gehiago, muga bat gutxiago"

96-97 ikasturtea

MATRIKULA EPEA ZABALIK

**Alemana, frantsesa, ingelesa eta gainera
umeendako nobedadeak ditugu**

INFORMAZIOA

Araba Etorbidea, 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32/79 65 54


Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00

Enpresa eta Berrikuntza Zentroa (EBZ): gaur aurkeztu eta irailean eratu

Gaur eguerdian aurkeztu da Udalean Arrasateko Enpresa eta Berrikuntza Zentroa. Aurkezpen ekitaldira etorri dira Guillermo Etxenike, Ekonomia eta Turismo Diputatua; Jabier Retegi, Industria Sailburua eta Roman Sodupe, Diputatu Nagusia. Alkateak, berriz, ongiatorria egin du eta Saiolaneko gerenteak, Armin Isastik, EBZa zer den azaldu.

Horrez gain, zentroaren lehenengo partaideak izango diren enpresak zeintzuk izango diren jakinarazi da. Lau izango dira Saiolanetik irten eta EBZan kokatu diren proiektuak: Danka multimedia, ingurugiroaren alorrean lan egiten duen Isea enpresa, Almis informatika finantzieroa eta beira-zuntzen profila fabrikatzen dituen Abekien enpresa.

Behin aurkeztuta, irailean eratu egingo da EBZ. Oporren ostean eskriturak sinatuko dira notarioaren aurrean, eta juntako kideak bildu egingo dira adminis-



Saiolanen jaio ziren proiektuak izango dira EBZaren lehenengo partaideak.

trazio kontseiluan parte hartuko duten ordezkariak izendatzeko. Orain dela hamabost egun egindako plenoan onartu zen Udalaren ordezkariak

zeintzuk izango diren. Junta-ko partaidea Juan Antonio Barriocanal izango da, eta horrek Jose Mari Loitiren ize-
na proposatuko du azken hori

administrazio kontseiluko partaide izan dadin.

Hirukoaren errekurtsioa onartu ez

E.H.ko Justizi Auzitegi Nagusiak ez du onartu hirukoak aurkeztutako errekurtsioa, eta berriz ere Enpresa eta Berrikuntza Zentroaren jarraipena egiteko eratu zen batzordeak ezin duela aurrera egin jakinarazi du.

HBren errekurtsioari erantzunez, hirukoak eraturako batzordearen lana bertan behera geratu behar zela esan zuen Auzitegiak aurrez ere, baina EAJk, PSE-EEK eta EAK errekurritu egin zuten. Astean jakin da Auzitegi Nagusiaren bigarren eta azken erabakia.

EBZaren jarraipena egiteko batzordeak hiru bilera egin ditu orain arte. Batzordea zuzentzen duen Ignacio Jimenok adierazi izan duenez batzordearen helburua EBZa eratu arte, irailera arte, lanean jarraitzea zen. Batzordeak egin dituen bileretan hirukoa osatzen duten alderdietako zinegotziek parte hartu dute.



GRONDO elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa


Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



Preso bat Egin bat zozketa egin zen Irati tabernan zapatuan. Bigarren zozketa izan zela esan behar, lehenengoan ez zen eta irabazlerik agertu. Zerbaki sarituak honako hauek izan dira:

782a eta 3.589a. Zerbaki horien jabe bazara Irati tabernara zuzendu. Lehen zerbakiarentzat saria mendiko materiala da eta bigarrenarentzat 20 lagunendako azeria ederra.



Euskadiko Squash Txapelketa izan zen Musakolako kiroldegian ekainaren 21ean eta 22an. 33 parte hartzaile izan ziren eta guztien artean onena Jabier Gutierrez Sestaoko Benedicta taldekoa. Bigarrena Jose Luis Unanue Donostiako Mundaiz taldekoa. Hirugarren sailkatua Miguel Odriozola Mundaizkoa eta laugarrena Aitor Yanguas Alai taldekoa. Emakumeetan txapelketa Laura Saez eta bigarrena bere ahizpa Maria. Kontsolazio mailan Ricardo Espeitia eta Manuel Redondo aritu ziren lehian. Bien artean Espeitia nagusitu zen. Zorionak!



Bilin Boloka ibiltzeko aukera dute uztailean bi eta hiru urte arteko umeei. Txatxilipurdiko ludotekak abian jarri duen esperientzia berria da etxeko gaztetxoek jolas eginez ikasten joan daitezten. Goizeko 11etatik ordubata arte Musakolako eta Seberoko ludoteketan 36 neska-mutil elkartzen dira 6 begiraleen zuzendaritzapean era guztietako ekin-tzak burutzeko. Emaitza, jakina, primerakoa!



Musakolako Herri Eskolako 8. mailako ikasleak Katalunian izan dira ikasturte bukarerako bidaia egiteko. Bartzelonan egun batzuk igaro zituzten

eta besteak beste estadio olinpikoa ikustera joan ziren. Ondoren nola ez! Portaventurara joan behar eta bertan elegante pasa dutela esan digute.

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:
 • Sukalde altzariak
 • Armairu enpotratuak
 • Trastelekurako armairuak
Fabrikari erakusketa
 Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
 Tfnoa /FAX: 79 01 82

AMABET
LABORE ETXEA
 • Gurutze puntuak (Kit prestatuak)
 • Petit-point eta Bolilloa
 • DMC ariak (koloreen gama guztiak)
 • Arizko tela, Panama
 Kalebarria, 49 • OÑATI • Tfnoa: 78 04 84
 XXX



● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
 Kafea, ardoa, urdaitegia,
 fruitu lehorrak
 Arrasate Pasealekua, 33
 ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



Duela 100 urteko irudi bera errepikatu zen ostiralean Herriko plazan. Izan ere, bere mendeurrena ospatzeko **Donostiako Orfeoia**k orain 100 urte **Arrasate**n eman zuten kantaldia eskeini zuten. Gizonezko 70 ahots diligentzian heldu ziren arratsaldeko 5.30ak aldera plazara. Txapel gorria, mahoizko frakak,

albarkak, alkandora txuria eta partiturak besapean zituztela heldu ziren bertan zeuden ehundaka arrasatearren txalo artean. Arratsaldean herriko plazan emanaldia eman eta gero, gauean Goikobalu eta Euskadiko Orkestra sinfonikoarekin batera beste emanaldi paregabea eskaini zuten Amaia antzokian.

IZEN PROPIOAK

- **Luis Mari Lopez Rekarte** 34 urteko futbol jokalaria arrasatearra Real Mallorca taldean jokatuko du 96-97 denboraldian. Lopez Rekarte Realean eta Bartzelonan aritutakoa da. Azken denboralditan berriz, A Coruñaiko Deportivo taldeko koloreak defenditu ditu.
- **Igor Gordobil** 25 urteko arrasatearra Aretxabaletako UDA taldean jokatuko du datorren denboraldian. Igorrek Gasteizko Aurrera taldeko Juventus talde filialean jokatu du denboraldi honetan.
- **Jasone Mendizabal** 27 urteko arrasatearra AEDko dinamizatzailer berria da. Irailetik aurrera Jabi Ozaeta ordezkatu du Jasonek. ARKOn publizistak lanak bi urtez bete ondoren beste erronka bati eutsiko dio Jasonek AEDn. Zorte on!



Oskar Vitoria

BITXI LANTEGIA
ZURE GUSTOKO BITXIAK!

Garibai, 3 (Iturbide Egoitzaren ondoan)
Tfnoa: 77 01 44 • ARRASATE





LORAMENDI

**Bainujantziak
Bikiniak
Osagarriak**

*Hau da udan
jatzeko behar
duzuna!*

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Kalistroak

Txoko zaharra, beti gazte

Maidier Egües

Gazteen artean Arrasateko txokorik ezaguenetarikoa eta gustokoenetarikoa da. Agian leku estrategiko samarra delako edo arratsaldeak lagunekin batera elkarrekin pasatzeko leku gehiegirik ez dagoelako herrian. Kontuak kontu, kalistroak Arrasateko gazte belaunaldi askoren topaleku izan dira urteetan zehar eta gaur egun nagusi askori oroitzapen politak dakartzio gogora Sebero Altuben dagoen txoko horrek.

Herriko kalistroek aspaldi galdu zuten, berez, elizetako patioek duten funtzioa, apaiz eta fraileen pasialeku izatearena hain zuzen. Orain, frantziskotarren jabetzakoak izan arren, 14-18 urte arteko neska mutilen topalekurik estimatuena dira. Arkuetan eserita kartetan jolasten, kitarra jotzen eta berriketan pasatzen ditu orduak herriko gazte askok.

BELDURRAK ETA LOTSAK

Gaur egun kalistroetan ordu pila pasatzen duten gazteek barre artean gogoratzen dute txikitan kalistroei buruz zuten iritzia: "Sebe-



Udan eta neguan, kalistroak gaztez beteta egoten dira.

ron dagoen ate hori pasatzea beldur handia ematen zidan txikitan. Eskailera horien azpian jende maltzurrez betetako zulo bat zegoela uste nuen. Ez dakit... leku debekatu bat zen, gu ezin sartu gitezkeen leku bat. Nagusiak bakarrik sartzen ziren" dio uda honetako ordu asko bertan igarotzen ari den 16 urteko nekato batek.

Kalistroetan egoten diren gazteekin hitzegin ondoren, gauza bera esaten dute denek, kalistroak leku ezezagun eta

arriskutsu bat moduan ikusten zituztela txikitan. Igan detan San Frantziskoko mezara joan eta elizatik irten ondoren, gazte asko ikusten zen kalistroetara daraman atletik sartzen eta irtetzen baina asko jota, burua sartu eta atzera egiten zuten 9-10 urteko umeek, aurrera jarraituz gero zerbait arriskutsuarekin topo egiteko beldurrez. Ume horiek dira, lau edo bost urte ondoren naturaltasun osoz kalistroetara sartzen diren gazteak orain.

Dena den, kalistroetako

biztanle izatea ez ei da egun batetik besterako kontua. Horrek ez du esan nahi baldintza berezirik bete behar denik bertara sartzeko, baina gauza bategatik ala beste gatik, kalistroetara erregulartasunez joaten hasi baino lehen, *saikakera* desberdinak egin dituzte gaur egun bertan egoten diren gazteek. Adibidez, zera gogoratzen du orain lasai lasai bere lagunekin kalistroetan egoten den neska batek: "Hona sartu nintzen lehenengo aldian lotsa handia pasa nuen. Gazte guztiak begira nituela uste nuen eta ez nuen oso ondo pasatu. Gainera, ez zen bapateko gauza izan. Lehenengo nire lagun batzuk etortzen hasi ziren, eta zerbait emateko aitzakiaz sartu nintzen. Gutxinaka gutxinaka kalistroetan sartzera ohitu nintzen eta orain ordu pila bat pasatzen dut hemen lagunekin".

"GURASOEK EZ DAKITE ERORTZEN NAIZENIK"

Gaineko esaldia kalistroetan dagoen gazte askori entzuten zaio, beste askori ez. Batzuk ez dute arazorik gurasoei non ibiltzen diren esateko baina beste batzuk nahia go dute kalistroetan ibiltzen direla ezkutatzeara. Aurten kalistroetara joaten hasi den 14 urteko neska batek dioenez "nire gurasoek ez dakite hemen egoten naizenik, badakit ez litzaiekela gustatuko... zeozer esango lirakete. Egia

esan, kalistroak non dauden ere ez dakitela uste dut". Alboan duen lagunak arrazoiak ematen dio eta berari etxean gauza bera gertatzen zaiola aitortzen du.

Ez dago azterketa soziologiko bat egin beharrik neraberaroan dauden gazteen guraso askok 14-18 urte arteko gazteak elkartzen diren tokiez mesfidantza sentitzen dutela esateko. Adin horri atxekitzen zaizkion topikoenegatik izan daiteke mesfidantza hori edo bestela, umea auzoko plazatik kanpo atera dela ikusteak beldurra sortzen duelako gurasoen artean. Kontuak kontu, kalistroetako gazte gehienek esaten dutenez, gurasoek ez dituzte begi onez ikusten ez kalistroak ezta Monterron parkea ere, azken hau ere gazteen topaleku bihurtu baita. "Nire gurasoek badakite Monterronen ibiltzen naizela eta ez zaie batere gustatzen", "nire gurasoek hemen ibiltzen naizela jakingo balute... Kalistroetan drogadiktoak daudela uste dute, oso burugogorak dira baina ni ez naiz ezkutatzen eta naturaltasunez sartzten naiz hona, oso gustora egotan naiz eta"... kalistroetan lasai lasai eserita aurkitutako hainbat gazteren hitzak dira. Beste batzuk ordea, gurasoei eurak kalistroetara joatea ez zaiela inporta azaltzen dute eta ez dute ezer ezkutatzekeo beharrik. Era berean, badira gazte batzuk Seberoko atetik sartu baino lehen ingurura begiratu eta ezagunik ikusten ez dutenean sartzten direla esaten dutenak; beste batzuk ez dute estrategia horren beharrik izaten.

MUSEAN, TUTEAN, KANIKETAN...

... futbolean, musika entzuten, berriketan... horrela pasatzen dituzte orduak eta orduak kalistroetan egoten diren gazteek. Askok gaine-



Kitarra jotzen, kartetan jolasten eta hitzegiten pasatzen dute denbora kalistroetako gazteak.

ra, bertan ikasi dituzte karta joko asko: "Hasieran *Almentiroso* jolasten genuen baina aspertu gara eta orain musean jolasten erakusten ari dira lagun batzuk. Kitarra ere ekarri izan dugu batzutan" esaten du 14 urteko neska batek. 17-19 urteko koadrila batek berriz, kanikak eraman ditu kalistroetara eta horretan jolasten pasa dut arratsaldea. Tutean aritzeaz nekatuta zeudela esaten dute. Koadrila bereko mutilek *A lo matón* jolasten dutela baloiarekin esaten dute. Tremendo pasatzen ei dute.

Hamabost urteko neska talde bateko lagunek berriz, eurak denbora berbetan pasatzen dutela esaten dute, beti dagoela zer kontatu edo zer-

"Nire gurasoek kalistroetan drogadiktoak daudela uste dute, oso burugogorak dira baina ni ez naiz ezkutatzen eta naturaltasunez sartzten naiz hona"



"Kalistroak goizeko 8etarako zabalik egoten dira eta klasetik piper egiten dugunean hona etortzen gara denbora pasatzera. Hemen ez gaituzte ikusten eta lasai egon gaitzke"

taz berriketan egin.

Kalistroetan ligatzea berriz, zaila dela esaten dute baina behintzat, gustoko mutilaren begirada eta norberarena batzutan gurutzatzen direla diote. Gainera kalistroak ez ei dira leku aproposena bikotearekin batera egoteko; horretarako, mutil batek dioenez, "Santa Barbarara joatea da onena".

Bestalde, kalistroetako paretak eskaladoren trebaleku bihurtu dira ere. Hormetako harri batzuk zenbakiz markatuta daude eta hor ibiltzen dira gazte batzuk entrenatzen.

KOADRILA BAT, ARKUPE BAT

Koadrila bakoitzak bere arkupea alokatuta balu

Fray Rufino Gazteen laguna

Kalistroetako gazteak ondo ezagutu eta maite dituen gizonik badago, Fray Rufino da hori. San Frantzisko elizan frailetzan daraman 40 urteetan kalistroetan ibili diren gazte guztien lagun egin da. Gogoratu ere, gogoratzen du beste fraile eta apaizekin batera kalistroetan korrika egiten edo pasioan zihozela errezatzen zuten garaia.

— Zintzoak dira kalistroetako gazteak?

— Bai, oso zintzoak. Eurekin asko egoten naizenez, oso pertsona onak direla esan dezaket. Eurek maite naute eta nik asko maite ditut.

— Zer iruditzen zaizu gazteak kalistroetan egotea?

— Ondo. Kalistroa eurendako babestoki bat da, egoteko leku apropos bat. Hori bai, batzutan baloia-rekin zarata gehiegi egiten dute eta kristal bat baino gehiago apurtu dute. Askotan esan diegu baloia-rekin ez ibiltzeko baina...

— Kontseiluak ere ematen ei diezu...

— Bai, eurengana hurbiltzen naiz eta kontseilu onak ematen diet, nagusien

maitasuna behar dute eta. Ez erretzeko esaten diet baina beno, nik ere euren adina nuenean erretzen nuen ezkutu.

— Guraso askori ez zaie euren seme-alabak kalistroetara etortzerik gustatzen...

— Izan zen garai bat, orain 15 urte edo, drogazale asko ibiltzen zena kalistroetan eta guraso askok txarto pentsatzen jarraitzen du. Hemen ibiltzen diren gazteek ez dutela gauza txarrik egiten sinestu beharko lukete.

— Bizi izan duzu une tristerik kalistroetan?

— Bai. Mojak ospitaletik joan eta ospital bera kendu zutenean ere oso triste jarri nintzen; alargun baten tristura sentitu nuen.



Badirudi gazteentzat kalistroek baldintza guztiak betetzen dituztela arratsalde lasai bat igarotzeko lagun artean.

PEKATU TXIKIAK


Kalistroak leku estrategiko samarra dira. Estrategikoak zigarroak eta porroak erretzen hasi diren gazte gehienak ez dituztelako bertatik kanpo erretzen. Bertan dauden gazteek esaten dutenez, "nagusiak ez dira hona sartzen eta hemen nahi duguna lasai lasai egin dezakegu". Lucky Strike paketea alban duen neska batek zera dio, "Beno, bai, hemen erretzen dugu baina bakarrik jaie-tan eta oso gutxi", nahiz eta berarekin hitzegiteko uanean San Juanak pasatuta egon.

Eskolatik piper egiten dutenean ere, kalistroetara joaten direla esaten dute: "Kalistroak goizeko 8etarako zabalik egoten dira eta klasetik piper egiten dugunean hona etortzen gara denbora pasatzera. Hemen ez gaituzte ikusten eta lasai egon gaitezke".

Neska-lagunarekin edo mutil-lagunarekin ere joaten da bateren bat kalistroetara. Bikotearekin egoteko lekurik aproposena Sta. Barbara bada ere, batek baino gehiagok muxukatu du lehenengo aldiz bere laguna kalistroetan, nagusien begiradetatik urrun.

moduan, lagun talde bakoitzak bere txokoa du kalistroetan. Hemengo aldean, hangoan... bitxia bada ere, lagun taldeek beti leku berean jartzeko ohitura dute. Euren lekua okupatuta badago, albo arkupea joaten dira baina beti lerro berean: "Gu alde honetan jartzen gara beti, eta hemen lekurik ez badago, beste aldera goaz. Hango arkupean sekula ez gara jartzen, han nagusiak egoten dira eta" dio neska koadrila bateko gazte batek.

Udan, udaberrian, neguan... edozein urtaro eta garai da ona kalistroetan egoteko. Udan freskoago egoten delako kalistroetan eta neguan, euria dagoenean bertan bustitzen ez direlako.



Ander Corcuera

Cars-en munduan murgilduta gazte gaztetatik

Ander Corcuera 6 urterekin izan zuen lehen cars-a bere eskuetan. Une honetan 16 urte ditu eta cars-en mundua kirol bat baino zerbait gehiago izatea gustatuko litzaioke. Arrasatear honek herrian entrenatzeko leku aproposik ez duenez Bilbora joan behar izaten du astebukaeratan azelaradorea eta freno dituen auto berezi eta txiki horretan entrenatu ahal izateko.

— Noiztik ezagutzen duzu carsen mundua?

— 6 urte nituenean aitaren lagun batek cars bat oparitu zigun eta orduan hasi nintzen auto horren nondik norakoak ezagutzen. Egia esateko hasieran aita ni baino gehiago ibiltzen zen. Gero beste auto bat erosi genuen, zaharra baina konpetiziokoa. Auto horrekin hainbat lasterketetan hartu nuen parte maila bikaina erakutsiz. Orduan erabaki genuen auto hobea erostea helburu handiagoak lortzeko.

— Ze ezaugarri behar da cars-etan ibiltzeko?

— Psikikoki prestatuta egon behar zara. Bihurgunak hartzea izaten da zailena eta oso kontzentratuta egotea nahi eta nahiezkoa da. Fisikoki bestalde, ez da horrenbesteko prestakuntzarik behar baina sasoiaren bazea askoz hobeto.

— Orduko zein abiadura hartzen dute kotxe horiek?

— Lasterketetan 120 km/orduko. Errepidean 150 har dezakete arazo barik. Dena dela, kirol honetan abiadura ez da garrantzitsuena, zirkuitoarentzat abiadura egokia



Ander Corcuera cars munduan dabilen arrasatear bakarra.

lortzea baizik. Oreak lortu behar da ibilbidearen ezaugarriak eta har daitekeen abiaduraren artean. Bihurgunetan azkar ateratzen jakin behar da zuzenguneetan gehienezko abiadura hartzeko. Beste datu bat, irteera gelditan eta hasierako 100 metroan formula 1 batek lor dezakeen abiadura har dezake. Potenziari dago-kionez 140 kiloko pisuarendako 30 zaldi hartzen dut, hau da, lau kilorako zaldi bat.

— 16 urte bakarrik dituzu, baimen berezia behar da gidatzeko?

— Bai, kotxeak azeledadorea eta frenoa ditu, ez du kanbiorik baina ibiltzeko federatua egotea derrigorrezkoa da.

— Zenbat balio du horrelako kotxe batek?

— Lehen eskuko batek 560 mila pezeta gutxi gora behera. Gainera ondo zainduta izateko dirua behar da. Diruaren arazoa helburuen arabera doa. Goyaldean ibili nahiez

gero dirua behar da, helburu handi barik lasterketetan parte hartzeko gutxiago.

— Arrasaten entrenatzeko tokirik badago?

— Ez, horregatik mugitu egin behar gara beste toki batzutura. Bilbo aldean afizio handia dago eta bertara joaten naiz astebukaerero entrenatzen.

— Urtean zehar zenbat lasterketetan hartzen duzu parte?

— Urtean zehar Vasco Navarro txapelketa burutzen da, guztira 15 froga. Horieta emaitza onak lortuz gero, urriaren erdialdean estatuko txapelketa izango da Gironan. Bertara joateko itxaropena dut.

— Parte hartu duzun lasterketak kontuan hartuta zein da gehien gustatu zaizuna?

— Lasterketa guztiak gustatzen zaizkit baina azkena Azpeitian izan nuen eta asko gustatu zitzaidan. Pena izan zen emaitza hobea ez lortu izana

baina azken bueltan motorrarekin arazo batzuk izan nituen.


— Nora heltzea gustatuko litzaizuke?

— Gustatu lehen formulara baina hori oso gaxa da. Jende asko dago eta jauzia emateko kalitateak, dirua eta laguntza handia behar da.

— Zergatik ez dago Arrasaten afiziorik?

— Jendeak ez du ezagutzen eta ez badu ezagutzen zaila da afiziorik eta jarraritzailerik izatea. Gainera entrenatzeko leku faltak ere ez du laguntzen. Hala ere, datorren urterako hiru zirkuitu jarri behar dituzte Euskadin: Beasainen, Gasteizen eta Bilbon. Horrek beharbada afizia gehiago pizteko balioko du. Bide batez esan behar dut Arrasaten cars froga bat antolatzeke asmoa dugula. Motozale elkartekoekin jarri gara harremanetan eta gabonak bitartean baliteke lasterketa hori burutzea.

Zikloturisten irteeraren profila



Jose Mari Saiz II. Memoriala zikloturistentzat

Deba Garaiko txirrindulari taldeak Jose Mari Saiz II. memoriala antolatu du domekarako. Goizeko 9etan Maxi Eroski parean elkartuko dira parte hartzaileak 115 kilometro egiteko asmoz. Ibilbideak herri hauek zeharkatuko ditu: Arrasate, Arlaban, Legutio, Aramaio, Arrasate, Oñati, Legazpi, Deskarga gaina,

Antzuola, Bergara, Arrasate, Santa Ageda, Aramaio, Azkoaga, Untzila, Aretxabaleta eta Arrasate. Jose Mari Saiz lehen memoriala 1992an egin zen. Memoria-larekin istripuz hil zen zikloturista omendu nahi dute antolatzaileek. Saiz memoriala prestatzeko arduradutenek laguntza bila dabilta. Hori dela eta, herri-

tar guztiei gonbitea egiten diete zapatuan goizeko 11.30etan Zikloturisten lokalean egingo den bilerara joateko. Lokal berria Ignazio Zuloagako 10. zenbakian dago. Memorialean diplomak banatuko zaizkie txirrindulariei eta horrez gain sari bereziak izango dituzte zikloturista gazteenek eta zaharrenek.

Santamaina pilota txapelketa

Santamainako pilota txapelketa hasiko da ostiralean arratsaldeko 6etan. Benjamin, alebin, infantil eta jubenil mailako hainbat partidu jokatu da Makatzenako frontoi txikian. Benjaminetan Etxabe-Agirre bikotearen arerioak Jimenez-Losada izango dira. Alebinetan aurrez aurre Aranzeta-Urkia, Malasetxeberria-Balanzategi izango ditugu. Infantiletan Ormaetxea-Uribarren batetik eta Ugartetxe Dominguez bestetik. Azkenik jubenetan Alzelai-Lizarralde bikotearen aurkaria Miranda I-Aroztegi. Asteazkenean berriz, 5.30etik aurrera beste lau pilota partidu jokatu dira Makatzenan.

Arrasateko Txirrindulariak

Arrasate Txirrindulari Taldeko txirrindulariek bi lasterketa izango dituzte asteburuan. Zapatuan Elgetako mendi kriteriumean izango dira eta domekan Alegiko Munduate memorialean.

Santamainako Futbito txapelketako finalak asteburu honetan

Futbitoa izango da nagusi Santamainan astebukaeran. Zapatu eta domekan 6 final ikusteko aukera egongo da. Zapatuan Makatzenako kantxan benjamin, aurrebenjamin eta emakumeen finalak jokatu dira.

Zapatua - Makatzenan

Benjaminak 9.30etan

Garajes Eder - Pedrusko

Aurrebenjaminak 10.30etan

Bar Equis - Erguin

Emakumeak 11.30etan

San Andres - Indomables.

Domekan ere beste hiru final jokatu dira. Infantilak, alebinak eta emakumeen finalak egongo dira ikusgai Santa Teresan

Domeka - Santa Teresako kantxan

Infantilak 9.30etan

Centro CC Estremeño - Video Club Daglas

Alebinak 10.30etan

Fontaneria Aretxabaleta - Leniz Sport

Emakumeak 11.30etan

San Andres - Indomables

Jose Marcos Moreno

Arrasatear bat Alemanian pianoa ikasten

Marcos arrasatearra da eta 33 urte ditu. Duela 4 urte Alemaniara joan zen bizi izatera eta bide batez bere piano ikasketei jarraipena ematera. Orain urtean behin edo birritan etortzen da herrira familia bisitatzerako. Alemanian dagoenean Arrasate faltan botatzen duela esaten du baina hona etortzen denean Muniqueko bizimoduaz gogoratzen da.

— Zer dela eta joan zinen Alemaniara?

— Kontu pertsonalengatik joan nintzen eta bide batez, hemen hasitako piano ikasketak jarraitzeko. Arrasaten bizi nintzela pianoko 5. mailara arteko azterketak egin nituen. Hara joan nintzenez Alemanian oso ezaguna den musika irakasle baten akademia pribatuan hasi nintzen ikasten. Hasi diot, hemengo pianoaren ikasketen kontzeptioaren aldean oso desberdina delako Alemaniakoa eta hemen jasotako ezagupenek ez zutelako ezertarako balio han. Alemanian gorputza lantzen da asko, pianoa jotzea lan fisiko bat moduan ikusten dutelako. Hango metodologiak harrituta utzi ninduen.

— Arrasatera bueltatzean nola aurkitu duzu musikaren egoera?

— Duela egun batzuk zera esaten nien lagun batzueri: Musika ikasketak amaitu dituzten arrasatear gazteek hemengo musikaren ardura hartu beharko luketela, herrian oso musikari onak baitaude. Ez dut esan nahi musika antolaketa txarra denik, ezta gutxiago ere, bai-



na guztiak egin daitezke, alde horretatik, beste herrialde batzuk aurreratua goak baitaude. Alemanian adibidez, musikari dagokionez, exigentzia maila izugarria da baina urtean zehar ikasle batek jotzen duen obra kopurua askoz murriztagoa da hemengoaren aldean. Hau da, hemen piano ikasle batek urtean zehar hainbat partitura jorratu behar ditu baina ez da sakontzera heltzen, batekin amaitu bezain laister beste batekin hasi behar. Beraz, hemen musikariak ez du kontakturik hartzen obrarekin eta nire ustez hori da sistema

honen akatsik nagusia.

— Zerk harritu zintuen Alemaniara heltzean?

— Hara joan nintzenez jende guztiak Euskal Herria ezagutzen zuela uste nuen. Alemaniera ikasi beharra nuela eta, eskola batean eman nuen izena eta han herrialde askotako jendearekin egin nuen topo. Bakoitza nongoa ginen eta gure herrialdea zelakoa zen esan behar genuenean eta nire txanda heldu, Euskal Herria eta gure arazo politikoa jende gutxi ezagutzen zuela konturatu nintzen. Hemengo jende askok, gure janaria dela,

gure mendiak direla, gure kultura dela... uste dut mundu guztian ezagutzen gaituztela eta hori ez da horrela.

— Bekarik gabe joan zinen hara. Nola egin duzu aurrera?

— Egun erdiz Caritas-en egiten dut lan eta horrela nire ikasketak ordaintzen ditut. Astean lau egunez 92 urteko zaharrekin egoten naiz eta horrela bide batez alemaniera ikasten dut.

— Zure bizitza han finkatzea pentsatu duzu?

— Ez, hona etorri nahi dut bizi izatera baina ez da erabaki erraza. Pentsatzen nuen baina gustorago nago han, nahiz eta hemengo gauza batzuk botatzen ditudan faltan. Bestalde, Munich oso herri polita da, oso berdea. Emakume zaharrak porruak eroatera bizikletarekin joaten dira oraindik eta orokorrean, jende guztia mugitzen da bizikletaz. Kontzientzia ekologiko handia dago. Egun hauetan Santa Barbarara joan izan naiz txakurrarekin pasiatzera eta harrituta geratu naiz parkean jarrita dagoen zakarrontzi piloarekin. München Europako bigarren parke handiena dago: 7 kilometro ditu baina apenas daude zakarrontziak, jendeak ez baitu ezer botatzen lurrera.

— Han zaudenean zer botatzen duzu faltan?

— Euskara ezin mantendu izanak pena handia ematen dit. Euskal Telebista eta Euskadi Irratia sintonizatzea gustatuko litzaidake. Hemengo jendearen izateko era ere faltan botatzen dut eta baita eguzkia eta beroa.

.....

“Hara joan nintzenez jende guztiak Euskal Herria ezagutzen zuela uste nuen baina ez da horrela”

Karnet elektronikoak jarriko dira abian urritik aurrera Monterrongo liburutegian

Urritik aurrera liburutegian egiten diren mailegu guztiak ordenarean geratuko dira erregistratuta eta irailetik aurrera karnet berriak banatzen hasiko dira liburutegiko arduradunak. Aldaketa honek orain urte eta erdi liburutegian hasi zen informatizazio prozesuari erantzuten dio. Izan ere, liburutegian dauden 23.000 liburutako %80ari kode barra jarri zaie dagoeneko.

Liburuei kode barra jarri eta gero, karnet zaharrak jaso eta berritzen hasi ziren liburutegiko lankideak eta dagoeneko 2.000 karnet berriztuta daude. Arrasateko liburutegiak 6.000 bazkide inguru dituela kontuan izanik, gaintzeko karneten berriztapena jendeak bere karnet zaharrak liburutegira eramaten dituen heinean egingo dela diote liburutegian.

Kreditu txartelen forma

Karnet berriek bankueta-



Monterronen liburuak atera ahal izateko derrigorrez eraman beharko da karnet berria.

ko kreditu txartelen forma bera daukate. Ez daramate bazkidearen argazkirik baina bai kode barra bat. Kode barra hori pistola optiko baten bidez irakurtzen da eta irakurritako informazioa liburutegiaren sarreran dagoen ordenadorera pasatzen da. Modu honetan maileguak modu txukunagoan egitea eta liburutegitik kanpo dauden liburuak kontrolatzea errezagoa da.

Txartel berriaren erabilpenak liburutegiko bazkideen ohituren aldaketa ekarriko du. Izan ere, orain arte jende askok ez zuen karneta gainean eramaten eta bere bazkide zenbakia gogoratzearekin nahikoa zuen liburu bat atera ahal izateko. Oraingo sistema berriarekin derrigorrezkoa izango da txartela sarreran aurkeztea liburuak etxera eramane nahi bada.

LABURRAK

Justo Garate Beka

Bergarako Udalak antolatzen duen aurtengo Justo Garate beka Euskal Herriko historiaren edozein alor aztertzen duen proiektuari emango zaio. Beka honen helburua historia, soziologia edo euskal filologiaren ikerlari gazteei lan aukera bat ematea da.

Aurtengo beka 935.000 ptakoa izango da. Bekaren eskaria egin nahi dutenek irailaren 1etik 30erako epea izango dute dokumentazioa aurkezteko. Eskaria egiteko hainbat baldintza bete behar da: 35 urte baino gutxiago izatea; diplomatu titularen jabe izatea; expediente akademikoa aurkeztea, baita kurrikuluma, NANaren fotokopia eta ikerketaren pausoak laburtzen dituen memoria.

Beka jasotzen duenak 11 hilebeteko epea izango du lana egiteko eta origina- la izan beharko da.




NEKAZALTURISMOA



Zabola, z/g • Tfnoa: (945) 44 50 95 • ARAMAIO (Araba)

UNZUETA
JATETXEA eta LOGELAK

- Egunero zabalik
- Lau gela bere bainuarekin
- 120 lagunendako jantokia (banketeak, jaunartzeak, ezkontzak, enpresa bilerak...)
- Espezialitatea: haragi eta arrain parriladak



z da oso zaharra gaurko argazkia, asko jota 25-26 urte izan ditzake, eta argi dagoenez Arantzazun atera zen.

Erretratuan mutil gazte kuadrila, goizeko 8ak aldean Mondragoetik irten eta eguerdi parterako Arantzazura iritsi zena. Ezkerrekoa **Rafa Uribarren** arrasatearra da, bere ondoan dagoena zarautzar bat, **Santi Iruretagoiena**. Erdian eta zutik **Juan Bautista Agirre**, eta bere hankapekoa beste mon-



dragoetar bat, **Juanjo del Valle**. Beturrekoduna **Antton** izeneko bat, amezketa-rra diotenez eta eskubikoa ere

mondragoetarra, **Miguel Angel Gonzalez**.

Itxura baten udalekuetan ezagutu zuten elkar eta sasoi

hartan izan zuten bai harremanik, batez ere mendi irteerak egiteko orduan, sarri samar joaten ziren eta.

YOSU HERMIK
VENTANAS AISLANTES

04

Kalitate gorena leihuetan.

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

Irñari
Alfonbra pertsiar eta orientalak

APARTEKO PREZIOAK
Alfonbra stock-ari irteera emateko

Paseo de la Senda, 1 - Tfnoa. (945) 23 04 84
(Senda kafetegia-aren ondoan)

Gasteiz

● *Joxe Bereziabar*

Berrogeitamar urte apaiz lanetan

Zapatuan berrogeitamar urte bete ziren Joxe Bereziabar apaiztu zela Gasteizko seminarioan. Hurrengo egunean, Mondragoera etorri, eta Parrokian Meza Solemnea eman zuen. Joan den domekan, 50 urteurrena ospatzeko eta omenaldi gisara, gauza bera egi-tea egokitu zitzaion.

- Zer moduz domekako ospakizunak?


- Lasai, aparteko eguraldiarekin, eta oso ondo. Egia esateko, neuk ez nuen horrelako ospakizunik gura, uste dut horrelakoak norbait hiltzorian dagoenean edo heriotzetik gertu dagoenean egiten direla eta. Baina, egozkortu egin dira eta aurrera atera dute: lehenengo ospakizuna Donostian izan zen gotzaiarekin apirilaren 28an, gero Jesusen Bihotzaren egunean Santa Agedan, eta pasa den domekan neure herrian, Mondragoen, orain 50 urte lehenengo meza eman nuen tokian eta egun berean. San Juanetan bertan abestu zuten meza. Meza laguntzen hamarren bat lagun izan nituen, bat Granadatik espreski etorri zen, nirekin batera Santa Agedan lanean ibilitakoa.

- Nola hartu zenuen Seminarioa joateko erabakia?

- Debozioa alde batetik; bestetik, eskolara joateko gogorik eza. Hamahiru urte t,erdirekin joan nintzen Saturrarango Seminarioa. Bi urte pasa nituen han, baina gerra etorri zen eta hirugarren urterako Lazkaoko benediktarretara joan nintzen. Laugarren eta boskarren urteak, dominikoetan, Bergaran. Filosofia eta Teologia ikasketak gero. Azkenik hamabi urte pasa eta gero, Gasteizen egin nintzen apaiz, 25 urterekin.

- Gasteizen apaiztu eta lehen meza jaioterrian.

- Bai, baina gero alde egin nuen. Abuztua eta iraila Madrilan pasa nituen, San Rafaelgo asiloan. Irailean bertan hartu nuen Arabako Baños de Ebroko parrokiara joateko agindua, urtebeterako. Soldaduzka egin beharra ere baze goen, eta horrela 1947.eko urrian Gasteizko Ospitale Militarera joan nintzen. Arrasatearren bati edo besteri lortu nien bai permisoren bat edo beste, San Juanetarako, Aste Santuetarako... gogoratuko dute seguruen. Lau urte t,erdi pasa han eta Uribarriko Parrokiara bidali ninduten. Hamazazpi urte han, eta gainontzeko denbora Santa Agedako



emakumeen ospitalean, beste 26 urte, jubilatuta arte.

- Lan asko egindakoa beraz.

- Batez ere Santa Agedan. Izugarria izan da hori, sinistuta ezindakoa. Neu ere, atzera begiratu eta harrিতuta geratzen naiz. 1.217 emakume eduki ditut hor eta gizakumeetara ere joaten nintzen, eta ia gau guztietan deitzen ninduten, untzinoren bat edo emateko. Gero, mojak eurak 85 ziren komunitate moduan. Gaixoak gutxi zirela eta, mojak gero.

- Azkenaldian baina igerriko zen aldaketarik Santa Agedan?

- Jakina. Gaur egun daukaten atentziorik ez zuten lehengokoek, ezta inondik ere. Mila aldiz hobeto daude orain. Ez sinestekoa da orduan horrenbeste jende zela bizi zen era horretan: 40 lagun gela batzuetan, usai-

na, botika gutxi, irteteko ere denak kuadrilan mojegatik zainduta... Nik neuk ez nuen ezagutu "camisa de fuerza" zelako hura, baina aurrez erabili izan zen. Gaur botika gehiago daukate, gehienek daukate aukera nahi dutenean kalera irtetzeko... eta orduan nik neuk ere ez neukan irtetzeko baimenik, hainbestekoa zen egin beharreko lana, lotura izugarria zeukan lanak, lanegun, jai-egun, baita ospakizun handietan ere. Mondragoera noizean behin ihesik etortzen nintzen.

- Askok aldatu da eliza, ezta?

- Guztiz. Meza ematea, latinez, sotana kentzea... onerakoa denean aldatu behar da.

- Eta gaur egungo bokazio falta nola ikusten duzu?

- Beno, etorriko da aldaketa. Mundu honetan horrelako gauzak behin baino gehiagotan gertatu dira, ikusten dena besterik ez dakigu orain. Begira, gu Saturraranera 26 lagun joan eta 26tik lau bakarrik ordenatu ginen.

● **“Atzera begiratu eta harrিতuta geratzen naiz Santa Agedan egindako lana ikusitakoan, 1.217 emakumeren kargua izan nuen”**

Z E R N A H I A G O ?

Agustin Murillo

Gure-Leku tabernakoa



- **Noztik tabernari?** Orain dela 15 urtetik.
- **Lan honen alde ona?** Lagun asko egiten dira.
- **Txarra?** Ordutegia.
- **Edari bat?** Gin-Tonic-a.
- **Erresaka kentzeko modu bat?** Mozkorra sortu duen edaria edaten jarraitzea.
- **Zein musika talde dago modan zuen tabernan?** Tequila taldea.
- **Zenbat garagardo mota dituzue?** Hamabi.
- **Zure horoskopo seinua?** Geminis.
- **Sinisten duzu horoskopoetan?** Ez gehiegi.
- **Noiz egon zinen azkenekoz ileapaindegian?** Duela bi hilabete.
- **Defektu bat?** Oso altu hitzegiten dut.
- **Bertute bat?** Pazientzia daukat eta lagunekin atsegina izaten saiatzen naiz.
- **Miresten duzun pertsonaia bat?** Al Paccino.
- **Liburu bat?** Parque Jurásico.
- **Irakurri ondoren ikusi zenuen pelikula?** Bai.
- **Telebista ala irratia?** Telebista.
- **Programa bat?** Informe Semanal.
- **Aurkezle bat?** Ramon Garcia.
- **Udan nora zoaz?** Conil-era.
- **Urtero joaten zara?** Ez baina askotan bai.
- **Praka marka bat?** Levi's.
- **Pizina ala hondartza?** Pizina.
- **Ze izozki gustatzen zaizu?** Yogur eta limoizkoa.
- **Neska lagun asko izan duzu?** Bai.
- **Zenbat urterekin eman zenuen lehen muxua?** Hamalaukin.

AUZOLANDEGIAK

Auzolandegia Senperen

Udako oporrak pasatzeko modu asko egoten da baina ondo pasatzeaz gain, badago ondo pasatzearekin bat hainbat elkarteri laguntza emateko opor motarik. Beste urte batez, AEDk Arrasateko Udaleko Euskara eta Gazteria Batzordeen laguntzarekin auzolandegiak antolatu ditu Iparraldean, Lapurdiko Senpere herrian hain zuzen.

Aurtengo auzolandegi honen helburua euskalgintzak eta kulturagintzak Senperen bere txokoa izan dezaten etxe bat egokitzea da sortu berri den Ostikenia elkar-tearentzat. Auzolandegian edozein lan egiten dakien jendeak eman dezake izena. Bi txanda antolatu dira; bata uztailaren 17tik 31ra eta bestea abuztuaren 17tik 31ra. Goizez lana egingo litzateke 8etatik 12.30etara eta arratsaldea Iparraldea ezagutzeko aprobeztatuko litzateke. Matrikula 15.000 ptakoa da, AEDko bazkideentzat 14.000koa. Izena emateko AED elkartera jo edo beste-la 77 12 28 telefonora deitu.

AKELARRE

Gozotegia

**ABUZTUAN ZABALIK
GOIZEKO 9etatik
ARRATSALDEKO 2ak arte**

AKELARREko TARTA EROTIKOAK.
Postrerik tentagarrienak!
Aukeratu zeurea!



Zarugalde, 54 • Tfnoa: 77 00 71 • ARRASATE

TOUR PORRA MUNDIALA!

Aldizkaria jasotzen duzunerako lau sari banatuta izango baditugu ere, lerro hauek idazterakoan lehen bi sarien berri emateko beste aukerarik ez daukagu. Inprenta kontuak jakina!

Zortzi lagun izan ziren astearteko etaparen ondoren 100 puntu lortu zituztenak, hau da: beraiek aukuratutako txirrindularien artean etapan lehen 6 postuak eskuratu zutenak zeuden, Zabel, Cipollini, Moncassin... Honako hauek izan ziren asmatzailak: Enrike Kabiketa, Aitor Azkarate, Anuska Elorza, Iñaki Larrea, Daniel Molinero, Eugenio Uribarren, Gorka Fernandez eta Jon Mendieta. ATBko kamaren aurrean zozketa egin eta eguneko maillota **lña-**

ki Larreari egokitu zitzaion. Zorionak beraz Iñaki.

Asteazkeneko etapan ihesaldia egon zen eta ezuzteko irabazlea, Saugrain izeneko txirrindularia. Ezezaguna bera eta baita ezezagun samarrak berarekin ihesaldian sartu zirenak, baina gure porrako 150 partaideen artean, izan zen ihesaldian sartu ziren txirrindulariren bat aukeratu zuenik. Gutxienez bi lagun, Ainhoa Eraña eta Amets Ugalde, etapako rekuentoa egin eta gero bi horientzat 34 puntu ematen zituen eta. Bezperan bezala zozketa egin behar eta **Amets Ugalde**ren zorionerako beraren izena izan zen aukeratua.

Datorren astean berri gehiago!



Egunero maillot bat eta azkenean mendiko bizikleta polita!!!

Begira zelako mendiko bizikleta dotorea prestatu duten Lizarralde Kirolak dendakoek guk antolatua dugun porraren irabazlearentzat!

Eta ez da hori bakarrik porraren partaideek irabaz dezaketen saria, egunero maillot bat ematen diogu eta etapan puntu gehien lortzen dituenari. Gewiss, ONCE, Euskadi eta Mapei taldeetako maillotak daukagu oparitzeko, Jon Odriozolak, Mikel Zarrabeitiak, Asier Guenetxeak eta Abraham Olanok sinatuta. Sari bikaina ezta?

Bizikletarako sailkapen orokorra

<i>Izena</i>	<i>Puntuak</i>
• Milagros Beitia	108
• Enrike Kabiketa	104
• Aitor Azkarate	104
• Anuska Elorza	104
• Iñaki Larrea	104
• Dani Molinero	104
• Eugenio Uribarren	104
• Gorka Fernandez	104
• Jon Mendieta	104
• Ainhoa Eraña	103
• ...	


Denborapasak

• ESAERA •

“Diplomatikoa pertsona zintzo bat izaten da, bere herriaren onerako gezurrak esatera oso urrutira bidaltzen dutena”


WOTTON

• JEROGLIFIKOA •



Ordaintzeko onak.

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Jon, Aixolako lehen-dakaria. 9. Zauriz josia. 10. Mahometar izena. 11. (Ald.) Batean era hiruan artean. 12. Su-arma txiki eta arina. 14. Iparorratzak markatzen du. 16. Musika-eskalako lehenengo nota. 17. Urteko seigarren hilabetea. 19. Tira eginez apurtu. 20. Italiako telebista katea.

Bertikalak 1. Tramite. 2. Alkitran, mundrun. 3. Emakume izena. 4. Erbioa. 5. Mania. 6. Italian jaio dena. 7. Munduko kontinente handiena. 8. (Ald.) Autobus. 13. Trenbidean ibiltzen da. 15. Niri. 18. Kasik.

• HOROSKOPOA •

Aries Kontuz zure ile iraultzaile horiekin, ihesa antolatzen dabilta eta.

Taurus Adin horretara helduta ezin duzu larunbatero esfortsuak egin...

Gemini Nora zoaz, nora zoaz, oke-rrako bidetik?

Cancer Astronauta ere lanbide polita da. Animatu!

Leo Alaiegi bizi zara azkenaldian. Kontuz!

Virgo Kendu burutik oporretan kanpora joateko asmoa.

Libra Zoritxarra zelan uxatu asmatu ezinik zabilta.

Scorpio Zureak bezain garrantzitsuak dira besteen hitzak.

Sagitarium Hausnarketa sakona egiteko garaian zaude.

Capricorn Zure bizitza erotik aldatzea irtenbide onena izango da.

Aquarius Pipermina hartzen egi duzu goizetan. Igertzen zaizu, bai.

Piscis Langilea zara baina apur bat aspergarria ere bai.

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 BERGARA

Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

ARGI PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

Orain, Multipticasen hilebeterako diren kontaktuzko Multilens lenteak dituzu 15.000 pta. ordainduta sei hilabeterako. Horrez gain, lentilon mantenurako 355 ml-ko Unices Disoluzioaren bi flasko eta estrenatzeko prest duzun polo olinpiko bat oparitzen dizkizugu hileko 2.500 pta.gatik.



*Kontaktuko 12 lente hamasei hilabeterako: 15.000 pta. Prezio hau ez zaizkie ale bakarrei egingo. Promozio hau 96.7.31ra arte edo izakinak amaitu arte izango da.

Estrena itzazu
kontaktuzko lenteak
hile bakoitzean
2.500 pta.

MANTENURAKO
2 LIKIDO ETA
POLO OLINPIKO
BAT DOAN

**HILEBETERAKO
DIREN KONTAKTUZKO
MULTILENS LENTEAK**

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE

Ibargaray, 16 • BERGARA


J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

Bidebarrieta, 2 • EIBAR

TELEBISTAREN TXOKOA



Porran maillot bat egunero

ARRASATE PRESSEK eta Arrasate Telebistak antolatutako Tourraren Porrak sekulako arrakasta izan du. 150 lagunek bidali dute aldizkaritik ebakitako kupoitxoak eta honezkerok martxan dago porra.

Tourra amaitzean Lizarralde Kirolak dendak ematen duen mendi bizikleta ederra irabazteko aukera izango da. Horrez gain egunero egunero maillot bat oparituko da ATBko informatiboan.

KOMIKIA



Zaguzar.

PROGRAMAZIOA



5 Ostirala

20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak

8 Astelehena

20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak

9 Asteartea

20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak

10 Asteazkena

20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak

11 Osteguna

20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak

12 Ostirala

20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak

SOLUZIOAK

Horizontaleak: 1. Iglesias, 9. Zauritsu, 10. AIII, 11. (AII), Nalb., 12. Pistola, 14. Ipar, 16. Do, 17. Ekain, 19. Eten, 20. RAL.
Bertikaleak: 1. Izapide, 2. Galipor, 3. Lutsa, 4. Er, 5. Sino, 6. Iahitar, 7. Asia, 8. (AII), Sub, 13. Tren, 15. Enl, 18. Ia.
JeroGifitikoak:
Epe luzeak:

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABAETA
Tfnoa: 79 08 07



Erakusketa eta almazena:

Kale Txiki, 3 - behea
Tfnoa: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

Etxebizitzak

- **Garajea alokatuko nuke** Erguin-Larrea auzo inguruan. Tfnoa: 79 41 29.
- **Makatzenan etxebizitza salgai.** Jantzita, 3 logela, egongela, berogailua.... Tfnoa: 79 79 86.
- **Makatzenan etxebizitza salgai.** Oraintxe gutziz berriztuta. Berogailua, egurrezko lurra, PVC, 3 logela, ganbara, lorategia... Tfnoa: 79 07 64.
- **Etxebizitza salgai Arrasaten.** Tfnoa: 79 36 53.
- **Etxebizitza salgai Makatzenan.** Tfnoa: 79 61 15 (gauzez).
- **Pisu txiki bat alokagai Zarugalden.** 40.000 pta. Lo egiteko baina sukaldea erabilpenik gabe. Tfnoa: 79 67 65.
- **Pisua salgai Cordoba y Oro kalean** (San Andres). 3 logela, egongela, sukaldea, berogailua... Tfnoa: 79 67 65. Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Donostian apartamentua alokagai abuztuan.** Tfnoa: 21 22 68. Inda.
- **Ikasturterako pisua alokatzen da Donostian.** Oso merkea. Tfnoa: 71 50 87.
- **Playa de la Matan** (Torrevieja) gutziz jantzita dagoen apartamentua alokatzen da. TB, igogailua... Tfnoa: 71 63 19. Tfnoa: 81 55 83.
- **Uztailean pisua alokatuko nuke** Arrasaten. Tfnoa: (947) 50 99 59.
- **Lokala alokatu nahi dugu** nahiz eta txikia izan edo egoera onean ez egon. Tfnoa: 79 20 03.
- **Donostian apartamentua alokatzen da** abuztuan. Hilabete osoa edo 15 egun. Hondartzatik gertu dago. Tfnoa: 21 22 68.
- **Familia batek pisua alokatuko luke** Arrasaten abuztuan bizitzen hasteko. (94) 620 32 20.

Lana

- **OHoko klase partikularrak.** Tfnoa: 79 69 41.
- **OHoko klase partikularrak ematen dira.** Nahi izanez gero zure etxera joango naiz. Tfnoa: 79 47 35. Patxi.
- **BUPEko euskara, latin,** literatura eta ingelesezko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 77 13 77.
- **8. mailako arte klase partikularrak** ematen ditut. Tfnoa: 79 53 58.
- **Emakumea gertu etxeetan lan egin** edo umeak zaintzeko. Esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 27 48.
- **Klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 06 39.
- **Klase partikularrak emateko prest** uztailea eta abuztuan, euskaraz nahiz erdaraz, edozein ikagai ingelesa kenduta. COUra arteko maila. Tfnoa: 79 46 75 / 79 23 36. Amaia.
- **Esperientzia duen neska behar da** uztailean arropadenda baten lan egiteko. Tfnoa: 79 59 78.
- **Neska euskalduna gertu** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 08 21. Gauzez.
- **Neska euskalduna etxeko lanak egin** eta umeak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 08 21. Gauzez.
- **Kalkulo irakasle bat behar da** goizetan 2 orduko klaseak emateko. Tfnoa: 79 73 45.
- **Klase partikularrak ematen dira uztailean.** Tfnoa: 79 90 46. Susana.
- **Neska gazte euskaldunak uztailean** zehar umeak zainduko lituzke gauzez edo egunez. Tfnoa: 79 12 00. Agurne.
- **Informatikako 4. maila bukatuta** daukan gazteak OHO, BUP, Pascal, C eta MsDos-eko klase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 79 34 58.
- **Arotz bat behar dugu** lehen edo bigarren mai-

lako ofizialaz. Interesatuak dei egin 79 34 40 tfno. ra goizeko 10etatik ordubata arte eta 4.30etatik 8etara.

- **Fisika eta kimikako klaseak** emateko irakaslea behar dut. Tfnoa: 79 73 25.
- **Ileapaintzaile ikaslea** ileapaindegitan lan egiteko prest. Udan egun osoz eta urtean zehar goizetan. Tfnoa: 79 75 55.

Salerosketak

- **Kawasaki motoa salgai. ZZR-600.** Ondo zainduta. 550.000 pta. Kaskoa opari. Tfnoa: (908) 57 64 83. Josean.
- **Kanpineko karro-denda alemana salgai.** Tfnoa: 71 43 86.
- **Kawasaki 500 GPZ motoa salgai.** SS-AB. Tfnoa: 76 47 74. Joxe Migel.
- **Zaldia saltzen dira.** Tfnoa: 79 61 15. Gauzez.
- **TA 2212 fotokopiagailua salgai.** Oso gutxi erabilia. 105.000 pta. Tfnoa: 79 08 45.
- **ECR 375 kutxa erregistradorea salgi.** 65.000 pta. Tfnoa: 70 08 45.
- **Premier bateria osoa salgai.** Signia modelo. Oso egoera onean. Urte térdi dauka eta oso onda zainduta dago. Tfnoa: 14 79 79.
- **Yamaha XS-400 motoa salgai.** NA-M. Egoera ona ITV orain dela gutxi gaindituta. 150.000 pta. Tfnoa: 79 18 53. Jabi.
- **Peugeot 505 Turbo Diesel Covadonga** modelo salgai. SS-F. Tfnoa: 79 94 11.
- **200 litroko akuario berria salgai.** Tfnoa: 79 04 35.
- **Kanpin-karro denda erosiko nuke.** 74 05 37. Mila.
- **Kanpin-karro denda salgai.** Tfnoa: 79 65 70.

Aste Gazte

Lana

- Nafarroako Unibertsitate Publikoak 48 irakasle eta 6 unibertsitate eskolako laguntzaile lanpostuak deitu ditu. Titulazioa: lizentziatura. Epea: uztailek 15.
- Oposaketa eta egunkarrietan iragartzen diren lanpostuen berri izan nahi baduzue, Gazte Bulegoan astero-astero izaten dugu informazio berriztuta.

Bekak

- Bergarako Udalak Justo Garate Arriola beka deitu du, Euskal Herriko Historiari buruz iker-

keta lanak egiteko. Hizkuntza: euskaraz. Baldintzak: diplomatura, 35 urte baino gutxiago. Diruzenbatekoa: 935.000 pta. Epea: irailak 1-30.

- Mapfre Fundazioak ikerketarako bekak deitu ditu, lizentziatuei zuzenduak. Gaiak: kudeaketa sanitarioa, medikuntza kliniko, lan medikuntza, psikologia, rehabilitazioa, traumatologia. Epea: urriak 16.

"Aixola" Unibertsitate Auto-busak

- Datorren ikasturtean Arra-

satetik Donostia zein Bilbora joan nahi duzenok, irailetik aurrera eman dezakezue izena Gazte Bulegoan.

- Bazkide zaretenoi oharra: irailen autobusak ez badituzue erabili behar, uztailea bukatu baino lehen karneta Gazte Bulegora ekarri. Ekarriz ezean, iraileko kuota kobratuko zaizue.

Lehiaketak

- "Gazteak eta intsumisioa" VII. Argazki lehiaketa. Bi kategorioa: a) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak. b) 19-35 urte bitarteko edozein. Zuri-beltzean zein koloretan. Epea: urriak 11.

"Gaztea nintzen, osasuntsua, xumea... begiak malkoz betetzen zaizkit oroitzeraoan".

VITA SACKVILLE WEST. "PORTRAIT OF A MARRIAGE"

Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

Hiru eguzki



150.000 pta. 12 hilerako.
300.000 pta. 6 hilerako.

FAGOR TARTERAK (ø28-ø24 zm.)



125.000 pta. 6 hilerako.
200.000 pta. 3 hilerako.

IRRATI-ERLOJU IRATZARGAILUA (Philips)



100.000 pta. 6 hilerako.
175.000 pta. 3 hilerako.

PIC NIC SASKIA (4 Zerbitzuduna)

Hiru artikuluok:
250.000 pta.
12 hilerako,
500.000 pta.
6 hilerako.

Orain Euskadiko Kutxan hiru eguzki bezalako hiru aukera dituzu uda zure aurrezkiei etekin praktikoa ateraz has dezazun. Eta oraindik gehiago dago. Epea mugaeguneratzen denean, Superlibretan eta Super 55ean %4rainoko interesa jasoko duzu. Anima zaitetz eta emaezu uda ederra zure aurrezkiei.

Informa zaitetz Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan edo 901-333 444 telefonora deituta gaueko hamarrak bitartean.

Promoziio hau izakinak bukatu arte egongo da.

ARABA • BIZKAIA • GIPUZKOA



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun zuzena

INAUGURAZIOKO NANPAINA TANDIA



ihurgarriak



metalezko egitura



bihurgarriak



zala kentzekoak



ohe-sofak



bihurgarriak



erlajatzeko siloi elektrikoak



txokoararak



erlajatzeko siloi elektrikoak

microvin



larruzko sofak




alcántara



txokoararak

Sofa leku



Oparirik Freskagarrienak ziretza

grupo



Amuebladora Mondragonesa

Zigarrota, 1
Junto a Centro Hogar Muebles
Tel. 77 14 92
ARRASATE